

Beasaingo EH Bildu, PSE-EE eta Podemosen mozioa

Alderdi guztiek Olaran eraikinaren eraberritzea partekatzen dugu, baina ez, aurkeztu zaigun proiektua zein hau erabakitzeko modua. Ondoren azalduko ditugun arrazoiengatik:

Gardentasun falta proiektuaren garapenean. Herritarrei eta oposizioko alderdiei bizkar emanda. Udal Gobernuak *"Olaran Talentu Faktoria"* proiektua 2024ko urriko batzordean aurkeztu zigan lehen aldiz. Batzorde honen aurretik, oposizioko alderdiek ez genuen inolako informaziorik jaso. Eta ondoren ere, ez zaigu aukerarik eman parte hartzeko, ezta iritzia emateko ere. Gainera, orainartean herritarrei ez zaie proiektu honetan parte hartzeko aukerarik eman. Bi batzar egin badira ere, horiek informatiboak baino ez dira izan, eta ez dute aukerarik eman proposamenak edo ekarpenak egiteko.

Zentzu horretan, maiatzean zehar garatu diren parte hartze saioak, ez ditugu begi onez ikusten, soilik, aurrez erabakitako espazio jakin batera ari direlako mugatzen eta ez eraikin osora.

Adostasunik gabeko aldebakarreko proiektua da. Olaran eraikinaren eraberritzea, azken hamarkadan Beasaingo udalak egindako inbertsio publiko garrantzitsuena izatea aurreikusten da. 8 milioi euro inguru udal ordezkarien arabera. Beasaindar guztion ekarpen ekonomiko handia suposatuko du eta ondorioz, garrantzitsua da **Olaran faktoriaren eraberritzea ahalik eta kontsentsu zabalarekin egitea.** Zentzu horretan, egungo argazkia oso bestelakoa da. Oposizioko alderdi guztiak proiektuaren aurka azaldu gara, eta horrez gain, herritarren artean ez du harrera onik izan, informazioa zabaldu ahala aurkako iritzia zabalitzen doaz. Horren adierazle dira, bi batzar irekietan herritarrek egiten zituzten kritikak edota orain dela gutxi, herritarren iniziatibaz, "Olaran Beasaindarrokin" lemapen egin zen batzar irekia.

Olaran eraikina beasaindarrei zerbitzua ematera bideratuta egon behar du. Eraberritzeak, Beasainek, gaur egun dauzkan hainbat erronkei erantzuteko aukera ematen digu: Erdigunea eta porteri auzoa lotu, kultur ekipamendu gehiago eskaini, etxebizitza eskuragarriak gehiago izan, Beasainen garapen sozialerako espazio eraiki ... Herri gisa dauzkagun hainbat premiei erantzuteko aukera dugu Olarango eraberritzearen bidez, eta eraikina zein inbertsioak publikoak izango diren heinean, eraberritzeak beasaindarrei zerbitzua ematera bideratuta egon behar du.

Hori dela eta, mozio honen bidez, **ondorengo eskaerak** egiten dizkiogu Beasaingo EAJ-PNVren Udal gobernari:

- 1- Oraingo proiektua, behin behin, bertan behera uztea.
- 2- Partaidetza-prozesu integral bat abian jartzea, Olarango eraikinaren etorkizuna bere osotasunean definitzeko; herritarrek parte hartu ahal izango dute hainbat eragile sozial eta politikorekin batera, erronkak eta beharrak identifikatu ahal izateko eta, horrela, adostasun zabaleko proiektu bat garatzeko.

Aritz
Correia

Moción de EH Bildu, PSE-EE y Podemos Beasain

Todos los partidos compartimos la rehabilitación del edificio de Olarán, pero no el proyecto que se nos ha presentado ni la forma en que se están tomando las decisiones. Por las razones que vamos a exponer a continuación:

Falta de transparencia en el desarrollo del proyecto. Dándole la espalda a la ciudadanía y a los partidos de la oposición. El Gobierno Municipal nos presentó el proyecto de la "Olaran talentu faktoria" por primera vez en la comisión de octubre de 2024. Antes de esa comisión, los partidos de la oposición no recibimos ninguna información. Y después, tampoco se nos ha dado la oportunidad de participar ni de opinar. Además, hasta ahora, no se le ha dado la oportunidad de participar a la ciudadanía en este proyecto. Aunque se han realizado dos asambleas abiertas, estas solo han sido informativas y no han dado la oportunidad de hacer propuestas o aportaciones.

En ese sentido, las sesiones de participación realizadas en mayo no nos parecen adecuadas, ya que la participación se limita a un espacio específico previamente determinado y no se extiende a todo el edificio.

Es un proyecto unilateral sin consenso. Se prevé que la rehabilitación del edificio de Olarán sea la inversión pública más importante realizada por el Ayuntamiento de Beasain en la última década. Implicará una gran contribución económica de toda la ciudadanía de Beasain, por lo que **es crucial que la rehabilitación de la Olaran se haga con el mayor consenso posible.** En ese sentido, la situación actual es muy diferente. Todos los partidos de la oposición nos hemos manifestado en contra del proyecto, y además, no ha tenido buena acogida entre la ciudadanía, a medida que se ha difundido la información, las opiniones en contra se han ido extendiendo. Un claro ejemplo de esto son las críticas que se hicieron en las dos asambleas abiertas, o la reciente asamblea abierta organizada por iniciativa ciudadana bajo el lema "Olaran Beasaindarrokin".

El edificio de Olarán debe estar orientado a dar servicio a la ciudadanía de Beasain. La rehabilitación ofrece la oportunidad de responder a varios retos que enfrenta Beasain a día de hoy; conectar el centro de la villa con el barrio de la Portería, ofrecer más equipamientos culturales, aumentar la disponibilidad de viviendas asequibles, construir un espacio único en Beasain de desarrollo social... A través de la rehabilitación de Olarán tenemos la oportunidad de dar respuesta a muchas de las necesidades de nuestra comunidad, y dado que tanto el edificio como la inversión serán públicos, la rehabilitación debe estar orientada a dar servicio a la ciudadanía de Beasain.

Por todo esto, a través de esta moción, solicitamos lo siguiente al Gobierno Municipal de EAJ-PNV de Beasain:

1. Suspender, provisionalmente, el proyecto actual.
2. Poner en marcha un proceso participativo integral para definir el futuro del edificio de Olarán en su totalidad; donde puedan participar la ciudadanía junto con diferentes agentes sociales y políticos para que se puedan identificar los retos y necesidades y desarrollar así un proyecto en consenso.

